



# 40+1: DAKIGUNA ERAKUTSIKO DIZUGU UEUren UDAKO IKASTAROAK PREST

**lazko egoera ekonomiko zail berdinean, 41 ikastaro antolatu ditu UEUK, pasa den urteko arrakasta errepikatzeko helburuarekin. Udakoenak bat egiten du dagoeneko martxan duen “Ni ere, UEU” kanpainarekin, zeinak UEU ezagutara eman eta proiektuarekiko atxikimenduak jaso nahi dituen. Ikastaroei buruzko informazio guztia [www.ueu.org](http://www.ueu.org) helbidean dago.**

Aurkezpenean Karmele Artetxek, UEUko Zuzendariak eta Irati Iciar-ek, UEUko Udako Ikastaroetako arduradunak hartu dute parte.

**Karmele Artetxek** hartu du lehendabizi hitza: *“pozgarria da beste urte batez UEUren Udako Ikastaroak aurkezten egotea. Azken bi urteak UEUrentzat ekonomikoki oso zailak izaten ari dira eta egoera horretan gauzak antolatzen jarraitzea benetako ahalegina izaten ari da UEUn parte hartzen ari garen guztiontzat. Egoera honek, ordea, gure oinarri soziala indartzeko balio izan du, eta horri esker, iaz azken garaietako ikastaro kopuru handiena eskaini bagenuen 40. urteurrena ospatzeko, aurten eronka horri eutsi eta 41 aurkezten ditugu, iaz bezain arrakastatsuak izango direlaren ilusioarekin.*

*Lau hamarkada daramatza UEUK euskara eta unibertsitatearen alde lanean. Denbora tarte horretan UEUK egindako ekarpena handia izan da: euskara unibertsitate esparruan landu zitekeen apustua egi bihurtzea, euskarazko hiztegi teknikoaren definizioa, euskal komunitate zientifikoarentzat bilgune izatea, proiektu berritzaileak martxan jartzeko gaitasuna, unibertsitate-mailako testugintzan eta formazioan egiten duen lan erreferentziazkoa eta, noski, Euskal Unibertsitatearen aldarria. Oraindik, ordea, UEUK baduela zer eginik uste dugu, eta etorkizunean UEUren ekarpena handia izan daitekeela sinisten dugu. Horregatik jarri dugu martxan [“Ni ere, UEU”](#) kanpaina martxan. Bertan hainbat pertsona ezagunek UEUren berri ematen dute, lehen pertsonan.*

*Aurretik ere egoera larriak bizi izan ditugu UEUn, eta orduan bezala, orain ere aurrera egingo dugu. Izan ere, gure bazkide eta gertu ditugun erakunde eta banakoek erakusten ari diguten babesa eta laguntza izugarria izaten ari da, eta horrek beste hainbat urtez aurrera egiteko nahikoa indar ematen digu. Aurtengo Udako Ikastaroak ere horren isla izatea nahi dugu. UEUren lana ezagutara eman nahi dugu beraien bidez, jendeak ezagutu gaitzala gu eta baita egiten dugun lana. Horretarako Udako Ikastaroak parada ezinhobea dira. Dakiguna erakutsiko dizugu. Gonbidatuta zaudete denok”.*

## 40+1 ikastaro

Irati Iciar-ek, UEUko Udako Ikastaroen arduradunak hitz egin du ondoren, ikastaroeri dagozkien xehetasunak azaltzeko: “41 ikastaro antolatu ditugu aurten, inoiz baino gehiago. Hala ere, leloan 40+1 esaten dugu iazko arrakasta errepikatu nahi dugulako bai auzolean izan genuen babesean bai eta matrikula kopuruan ere. Azpimarratu nahiko nuke ez dela erraxa izan 41 ikastaro horiek antolatzea, jasotako proposamen kopuru handia medio, zaila izan da aukeraketa egitea, UEUren inguruan lanean dabiltzan profesional taldeak zein UEUren beraren sail eta bazkideek proposamen interesgarriak bidali baitizkigute.

**Esan bezala, guztira 40+1 ikastaro antolatu ditu UEUk aurten; horietatik 20 Eibarren (UEUren Ikastetxe Nagusian), 9 Baionan (IUT unibertsitatean), 11 Iruñean (Jaso Ikastolan) eta 1 Gernikan (Astra kulturako fabrika).** Iciar-ek adierazi duen moduan: “sei jakintza arloetan banatuta egongo dira: artea eta musika, giza-zientziak, ingeniari-tza eta teknologia, osasun zientziak, zientziak eta gizarte zientziak eta azken hau izango da jakintzarik nagusiena. Ikastaroekin batera, hiru Jardunaldi antolatu ditugu, UEUren sailen ekimenak hirurak ere eta Udako Ikastaroen plangintzan sartuak, udako eskaintzak dituen ezaugarriez baliatzeko, hau da, azpiegiturak eta batez ere ikasteko gogoia eta giroa.

(Ikastaroen zerrenda osoa oharraren bukaeran)

Iciarren esanetan, aurten hiru formatu desberdineko ikastaroak daude:

1. Ikastaro espezializatuak: ikastaro hauek egiteko aurretik jakintza maila bat beharrezkoa da.
2. Dibulgazioko ikastaroak: Interes orokorreko ikastaroak dira eta jakintza maila zehatzik ez da behar.
3. Garapen pertsonaleko ikastaroak: ikastaro hauek pertsona moduan garatzeko balio dute; galerak modu baikorren bizitzen ikasteko adibidez.

### **PREZIOAK ETA DIRU LAGUNTZAK**

Irati Iciar-ek UEUren udako ikastaroetarako dauden diru laguntzen inguruko informazioa ere aipatu nahi izan du, laguntza ugari daudenez jendea hauek eskatzera bultzatzeko:

<b>MOTA</b>	<b>OROKORA</b>	<b>MURRIZTUA ikasleak, langabeak eta jubilatuenak</b>	<b>UEU KIDEA</b>
<b>10 ordu</b>	70 euro	63 euro	52,50 euro
<b>12 ordu</b>	84 euro	75,60 euro	63 euro
<b>15 ordu</b>	105 euro	94,50 euro	78,75 euro
<b>18 ordu</b>	126 euro	113,40 euro	94,50 euro
<b>20 ordu</b>	140 euro	126 euro	105 euro
<b>JARDUNALDIK</b>	30 euro	10 euro	22,50

Laguntza garrantzitsuak daude aurten udako ikastaro hauetan parte hartzeko:

- » **Ikasle, langabetu eta jubilatuen matrikuletan BEHERAPENAK eskaintzen ditu UEUK (ikus goiko taula)**
- » **Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko unibertsitate ikasle eta unibertsitate ikasle ohi-langabetuei MATRIKULA, EGOITZA eta JOAN-ETORRIAK ordainduko dizkie.**
- » **Euskal Herriko hainbat UDALEK DIRU LAGUNTZAK emango dituzte beraien herritarrentzat. Zerrenda guztia UEUren web gunean ikusgai dago.**

**Izena emateko epea jadanik irekita dago eta ikastaroa hasi baino astebete lehenago egin ahal izango da matrikula.  
Informazioa eta matrikula: [www.ueu.org](http://www.ueu.org)**

## **ZOZKETA**

Facebookeko UEUren orriko jarraitzaile egin eta Ilaski Serrano eta Aines Haristoyren bideoa partekatzen dutenen artean, udako ikastaroaren matrikula zozketatuko dugu ekainaren 6an <https://www.facebook.com/udakoeuskalunibertsitatea>

## **HITZALDI-ZIKLOA: DAKIGUNA ERAKUTSIKO DIZUGU**

lazko bidetik jarraituz, aurten eren UEU eta Udako Ikastaroen zabalkundea egiteko, ekainean Bilbo, Baiona eta Iruñean hitzaldi zikloa antolatu dugu. Oraindik guztiak ez ditugu lotu, baina aurrerago jakinaraziko ditugu guztiak. UEUren jardueratik eratorritako hitzaldiak izango dira, dakiguna erakusteko asmoz, UEUren argitalpen, batzorde, sail eta ikastaroetan parte hartzen duten ikerle eta profesionalak emandakoak, alegia.

## **BIZIPOZEN BLOGA: bidali zurea!**

40 urte hauetan guztietan milaka pertsonak parte hartu dute UEUren Udako Ikastaroetan. Milaka gertakari, pasadizo eta kontu lau hamarkadetan. Bizipen hauek guztiak (guretzat bizipozak direnak) batu nahi ditu blog honetan ([www.unibertsitatea.net/blogak/UEU40](http://www.unibertsitatea.net/blogak/UEU40)) . Udako Ikastaroek (eta UEUK) zer eman diguten eta zer eman dezaketen adierazteko, bisita-liburu baten antzera. **Hori dela eta, Udako Ikastaroetan parte hartu duten guztiei dei egiten diegu beraien esperientzia bidali diezaguten [komunikazioa@ueu.org](mailto:komunikazioa@ueu.org) helbidera.**

## IKASTAROEN ZERRENDA

### ARTEA ETA MUSIKA

[Eskuekin pentsatuz, emozioak irudikatzen.](#) \*\*

Eibar - uztailak 1-2 - 12 ordu

[Ahots-teknika ikastaroa: kantatua sentitu, jolastu, gozatu.](#)

Iruñea - uztailak 22-23 - 12 ordu

[Euskarazko musikaren transmisioa eta sustapena.](#)

Baiona - uztailak 10-12 - 15 ordu

### GIZA ZIENTZIAK

[Euskal emakumeak XX. Mendean: estrategiak, bizi-ereduak eta ekarpenak.](#)

Baiona - uztailak 10-11 - 12 ordu

[Trantsizioa Euskal Herrian? Ikuspegi berriak.](#)

Iruñea - uztailak 22-24 - 18 ordu

[Itzulpenaren teoria eta jarduna: bideak urratzen.](#)

Baiona - uztailak 10-11 - 12 ordu

[Gorputza eta generoa euskal kulturaren eta literaturan.](#) \*\*

Eibar - uztailak 1-2 - 15 ordu

[Euskal Haur Literaturaz zer dakigu?](#)

Baiona - uztailak 10-11 - 12 ordu

[Academic SEO: zure lan akademikoaren ikusgarritasuna hobetzeko estrategia.](#)

Eibar - uztailak 15-16 - 10 ordu

.

### GIZARTE ZIENTZIAK

[Euskal Mitologia: hurbildu antzinako euskal mundura.](#)

Baiona - uztailak 10-11 - 12 ordu

[Ekintza kulturala baten ebaluaketa.](#)

Baiona - uztailak 11-12 - 8 ordu

[Euskal Herriko ekonomia eta gizartearen diagnostikorako lanabesak.](#)

Iruñea - uztailak 23-24 - 10 ordu

[Euskara eta kirola: euskara sustatzeko eredu eta baliabideak.](#)

Iruñea - uztailak 22-23 - 12 ordu

[Irakats- eta ikaste-prozesuak aberasteko aholku erraz eta egingarriak.](#) \*\*

Eibar - uztailak 17-18 - 12 ordu

[Eskola komunitatean eta komunitatea eskolan, XXI.mendeko erronkak.](#)

Iruñea - uztailak 22-24 - 15 ordu

[Irakaskuntzarako antzerki-teknikak: landu sormena, komunikazioa eta talde-estrategiak.](#) \*\*

Eibar - uztailak 1-2 - 12 ordu

[Guraso/hezitzaile eta haurren elkar ulertzea: zigorrak, xantaiak eta mehatxurik gabeko harremanak.](#) \*

Iruñea - uztailak 22-23 - 20 ordu

[Hezkuntza sistema alternatiboak, gizarte aldaketarako tresna eta gakoak.](#) \*\*

Eibar - uztailak 3-4 - 12 ordu

[Heziketa emozionala genero ikuspegitik.](#) \*\*

Eibar - uztailak 17-18 - 12 ordu

[Gazteak, sexua eta sare sozialak.](#)

Iruñea - uztailak 22-24 - 10 ordu

[Transmedia kontakizuna. Komunikazio esperimentuak.](#)

Eibar - uztailak 2-3 - 10,5 ordu

[Sormen-tailer aurreratua: ideietatik ekintzetara.](#)

Eibar - uztailak 1 eta 15 - 10 ordu

[Lidergoa, motibazioa eta talde-lana: pertsonen eta erakundeen eraldaketarako teknikak.](#) \*\*

Eibar - uztailak 3-4 - 12 ordu

[Coaching-erako sarrera.](#)

Baiona - uztailak 10-11 - 12 ordu

[Jendaurreko komunikazioan trebatzeko tailerra.](#) \*

Iruñea - uztailak 22-24 - 20 ordu

[Elkadura burujabetza eta Agroekologia \(II\): nekazaritza iraunkorrean sakontzen.](#)

Baiona - uztailak 10-12 - 18 ordu

[Zapalkuntza ugari, askabide a\(u\)nitz: herri-mugimenduen jardunean sakontzen.](#)

Gernika - uztailak 17-18 - 12 ordu

.

## INGENIARITZA ETA TEKNOLOGIA

[Ondare industriala eta parte-hartzea: eredu zaharrak, paradigma berriak.](#)

Eibar - uztailak 15-17 - 16 ordu

[Etxebizitzan zaharberritzea bioeraikuntza irizpideen arabera.](#)

Eibar - uztailak 3-5 - 18 ordu

[Weka, ikasketa automatikorako tresna: datuetatik erabakietara.](#)

Eibar - uztailak 4-5 - 10 ordu

[Ikastaroak emateko software berria: BigBlueButton eta Popcorn.](#) \*\*

Eibar - uztailak 17-18 - 10 ordu

[Nabigatu Lego NXT robotekin: abante!](#)

Eibar - uztailak 1-3 - 15 ordu

.

## OSASUN ZIENTZIAK

[Fantasia bideratuak: errealitatea ikusteko modu ezberdin bat.](#)

Eibar - uztailak 15-16 - 12 ordu

[Emozioak eta norberaren gaitasunak lantzen.](#)

Baiona - uztailak 10-11 - 12 ordu

[Estresaren tentsiotik, bat-batekotasun bizigarrira.](#)

Iruñea - uztailak 22-23 - 12 ordu

[Neuropsikologiaren ekarpenak pertsonekin lan egiten duten adituentzat.](#)

Iruñea - uztailak 23-24 - 10 ordu

.

## ZIENTZIAK

[Hondakinen tratamendua eta kudeaketa.](#)

Eibar - uztailak 15-16 - 10 ordu

[Lurzorua: lehorreko bizitzaren sostengua.](#)

Iruñea - uztailak 22-24 - 18 ordu

.

## JARDUNALDIAK

[Hizkuntzalari Euskaldunen I. Topaketak: egungo ikerlerroak.](#)

Eibar - uztailak 4 - 10 ordu

[Matematikari Euskaldunen I. Topaketak.](#)

Eibar - uztailak 18 - 10 ordu

[Pedagogia I. Topaketak: nola lortuko dugu Euskal Herrian eskola inklusiboa?](#)

Eibar - uztailak 19 - 5 ordu

.